

## **Uchkalduak bazter orotan\***

(Basques throughout the world)

Oxibar, Jean (Kaiet)

BIBID 1136634 (988) 11-784

---

*Mundu guztian euskaldunek bizi izaniko pasadizoak. Ahozko zubereraz egina. Hizkuntza mailako bitxikeria.*

*Anécdotas vividas por vascos en todo el mundo. En suletino hablado. Curiosidad lingüística.*

*Episodes anecdotiques vécus par des Basques aux quatre coins du monde. En souletin parlé. Curiosité linguistique.*

---

\* En souletin parlé. Archives Manuel de Ynchausti. Ustaritz.

Uchkal Herria, oren buian, tehipi beita heben sorthien oren biziazteko, uchkaldun haniteh badouatza haat hounat bizi bide teherkha, eta erraiten ahal da, bazter oroota jouaiten diela, noun nahi eta zounbait aldiriz, gutienik ouste delaik, agitzen ahal dela uchkaldun bateki. Zounbait lekhutan hatik bestetan beno haboa, Kalifornian, Montebideoan, Argentinan eta Chilen. Han e bada zer nahi uchkaldun izen, hebegainti kourridienak, eta uchkaldun edo uchkaldun seme izigarri abeatsak e bai, uchkalduna bethi ountsa errezipituik beita, noun nahi, bihotz houneko, langile eta pheestu delakoz.

Khountatzen die, gerla denboan, bizpahiou soldado uchkaldun agitu ziela ameikein soldado elibateki eta hek erran baziela lagun bat eta etzeiela deuse erraneazten ahal, etza-kiela zer lengouaje emaiten zin; elhestearazten bazien, champaña boutilla bat phakatuko ziela. Goue gizonak hasi zien frantsesez galthoz eta galthoz eta arropostuik ez. Azkenian, batek erraiten deo, khechian bezala: asto ziia, noun duk bai mihi? To, ziek uchkaldunak? – Bai; eta ameikegnak beha, estonatuik, eaountsi zien elhestan. Gizon houa Donachtin sor-thuik zen, eta oano haour joun Kaliforniat, frantsesa ikhasi gabe, eta, han e, ez ikasi anglesa, uchkaldun artzagnen artian egon beitzen bethi. Geo ameikegnek soldado hartu – Erran gabe da, ameikein soldadouek, gogo hounez phakatu ziela champaña boutilla ardoua.

Beste behin, bi uchkaldun soldado, Nice-n, Italiako hegian den herrian, ostatu batetan edatea galthatu zien, eta been artian, aaouz, uchkaaz mintzo beitzien, geo boutilla bat habo galthatu beitzien, ostalersak, uchkaaz erra: beretik? Goue gizonak estonatuik, phentsa!

Changai deitzen den Chinako portu handian, frantses itsas ountzi handi bat, lur bazterrian ekhualtuik zelaik, haen aitzinian, haat hounat ebiltiaeki, apvez bat ai zen uchkaa khan-toe baten eztia eztia emaiten. Tanpez arrapostia fin zeon ountzitik. Haat unguatzia, haa jouaitia eta arrapostu emailiaen teherkhatzia fite egin zin misionistak. Nour zen? Dona Jouane Zubuuko uchkaldun bat, ountzi hartan maiastugouan ai zena, eta hola Chinan, Japonian eta Judietan ebilten. – Ignaze Omize gagnekoua, bee denboako khontazale handienetaik zen, Khontatzen zin agitu zeola soldado izatia, Ozaztar bateki, Toulonen, gerlako ountzietan. Egun batez, gehien handi batek behar zin jin, ikhoustea eia han oro ountsa zienez, eta hortako maignelak, gozik bilduik, herrokatuik eta armak eskietan, ei-nheiak zien, beha egoitez, eia nouiz heltuko zen jaoun handi houa. Azkenian, agertu zen, bazterraik ikhousi eta maignelen

aitzinian igoan, phartitzeko phuntian. Aitzinian igaaitian, Ignazek erran zin uchkaaz, aaouz askigoa: zouazte hortik, asto handiak! – Braou! Gehein handia utzuli zen eta arrapostu eman frantsasez: ene gizona, geoko aldian, hie mihi hobeki begiatuko duk, eta frantseez phu eztezala erran holakoik. – Ignazen beo aldia! Gehien houa, Amiral Jaureguierry zen, uchkalduna. – Kanpoat joun, eta, uchkaldunak ahal bezala ai dia; zounbaitek bestetako lengouajia ikhasten die, bena habo-ochiek bilhachkatzen baizik ez. Behin, misioniste bat, nounbait uchkal herriko ostatu batetan, ai zen bazkaitan. Andee gazte zerbutchaia, frantseses mintzo zen, alegia, frantzinan handi. Bazkai urhentzian erraiten deo: Mon père, un café nature.- Mademoiselle, qu'estec que vous entendez par café nature? – Ene fedia, eztakit deuse.

Ignaze omiztarrak khountatzen zin, Toulonen zelaik Ozaztar haeki, ezpeitzakien frantsesa hatsarrian, ofizieak man-hatzian gaizki konprentzen ziela. Erran zielaiak: à droite alignement, bi uchkaldunak joun ziela galopaz, eskuin, herrokaen phuntala eta biharmenian ver gaiza. Harrituik, ofizieak teher-khazi zila eta ekhareazi beste uchkaldun bat, haek elhestatu goue bi gizonak, eta erriz lehertuik erran: ene komandanta, zuk erran duzunian: à droite alignment, hoik bestiak oro beno khorpitzez handiago beitia, enthelegatu dize: eskuin anima-liak. – Ze erriak!

Bena zer nahi izanik eta noun nahi izanik e, uchkalduna bee sorlekhiaz belhi ohit da, eta laket uchkaaz mintzatzen. Bordelen, Paisen, Kalifornian, Montebideoan, Buenos Airesen, Chilen, algar ganat biltzen dia, meza baten edo pheediku baten uchkaaz entzuteko, edo algarreki besta egiteko. Kalifornian, badie eginik, been khostuz Lourdako Ama Birjinaen eliza eder bat, Buenos Airesen, denboa luzaz, igan-te oroz, biltzen zien Joudane Jouhaneko elizala, berrogei bat edo haboo uchkaldun, niezpeen khantatzea heben bezala eta uchka pheediku baten entzutea. Ourthe oroz e bazen, eta oai arra hasi die, misione pheedikiak, aste batez, eta etzinez laket uchkaa kantiken khantatzen! Ourthian behin egiten zien peleinaje, edo beilla bat, Lujan-eko Ama Birjinai, houa beita han, heben Lourda bezala.

Bena hebentik hurrun, ohitzapen houna begiatzen badie bethi, guk, heben, eztetzagun galtza utz goue fedia eta ohi-dura edo kostuma hounak, bena bai etcheki, azkarki, ikhasi dutugun bezala. Hoiek bestetan boztaio emaiten badie, aisago eta segurago goui e emanen deikie, heben, biziaen bakian eta alageaki emaiteko.